

Gure bezeroek zenbat eta nola ordainduko duten ondo pentsatzea garrantzitsua da, eta DraftMe-ren kasuan nahiko argi daukagu. Gure ideia da prezioak errazak, merkeak eta eskuragarriak izatea, batez ere jokalaria gazteentzat.

Lehenik, Freemium eredua izango dugu. Hau da, jokalariek eta klubek oinarrizko funtzioak DOAN erabili ahal izango dituzte. Honela, jendeak ez du zalantzarik izango aplikazioa probatzeko eta erabiltzaile gehiago erakarriko ditugu.

Baina dirua irabazteko modu nagusia premium planetatik etorriko da:

- Jokalari Premium Plana: hilero gutxi gorabehera 3,99 €. Prezio hau nahiko merkea da jokalaria gazteentzat, eta trukean bideo gehiago igo, estatistika hobeak eduki eta klubaren aurrean nabarmendu ahal izango dira. Hau guztia balio duela sinetsita gaude.
- Klub Premium Plana: hilero 19,99 €. Klubek prest egongo dira hau ordaintzeko, euren lana asko errazten dielako: bilaketa aurreratuak, jokalarien bideo guztiak ikustea, jarraipen tresnak eta abar.w

Horrez gain, etorkizunean beste diru-iturri batzuk ere pentsa daitezke, adibidez: publizitatea, kirol-markekin akordioak edo aplikazio barruko promozioak. Baina hasieran, gure diru-sarrera nagusiak premium planetatik etorriko dira.

Laburbilduz; gure bezero potentzialak prest daude gure zerbitzuengatik ordaintzeko, balio handia ematen dielako eta prezioa egokituta dagoelako euren ahalmen ekonomikoari.